

Heriotzak %4,6 urritu ziren 2013ko hirugarren hiruhilekoan Euskal AEn

Hildakoen %20k 90 urte pasa zituen, 4tik 3 emakumeak

2012ko hirugarren hiruhilekoan, heriotza kopurua Euskal AEn 4.213 lagun hil ziren, iazko aldi berean baino %4,6 gutxiago, Eustaten datuen arabera. 2.066 emakume (%49) eta 2.147 gizon (%50,1) hil ziren. Araban 503 lagun hil ziren, Bizkaian 2.307, eta Gipuzkoan 1.403.

Hildakoen %22k 70 urte baino gutxiago zeuzkan; %20k 70-80 urte bitarte eta %38k 80-90 urte bitarte. Gainerako %20 90 urte baino gehiagoko 841 hildakoek osatzen dute; 4tik 3, emakumeak.

Heriotzen kausa nagusia tumoreak izan ziren: 1.470 lagun hil ziren horiengatik (%34,9); bigarren heriotza-kausa zirkulazio-aparatuko gaixotasunak izan ziren, 1.106 eragin zituzten (%26,3). Hirugarren, arnas eritasunak, 318 heriotza hiru hileotan (%7,5).

Gizonezkoen artean, tumoreak hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino; emakumezkoen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren, eta tumoreak bigarren. Arnas aparatuko gaixotasunak hirugarren heriotza-kausa dira, oraindik ere, sexu bietan.

2012ko hirugarren hiruhilekoan hildakoen arteko 22, urtebetetik beheragoko haurrak izan ziren: 11 mutiko eta 11 neskato.


2012ko hirugarren hiruhilekoko hazkunde begetatiboa positiboa izan zen, 958 lagun gehiago. Saldo positiboak izan ziren hiru lurraldeetan: Bizkaiak 345 biztanle irabazi zituen, Arabak 308 eta Gipuzkoak 305 .

1. taula: Heriotzak Euskal AEn, sexuaren eta heriotza-kausaren arabera Hiruhilekoen alderaketa

	2012ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2012ko 2. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2011ko 3. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	4.213	100,0	4.621	100,0	4.414	100,0
Gizonak	2.147	51,0	2.357	51,0	2.253	51,0
Emakumeak	2.066	49,0	2.264	49,0	2.161	49,0
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	4.213	100	4.621	100	4.414	100
Tumoreak	1.470	34,9	1.417	30,7	1.498	33,9
Zirkulazio-aparatua	1.106	26,3	1.286	27,8	1.202	27,2
Arnas aparatua	318	7,5	399	8,6	349	7,9
Txegoste-sistema	199	4,7	216	4,7	206	4,7
Kanpoko kausak	110	2,6	166	3,6	157	3,6
Gainerako gaixotasunak	1.010	24,0	1.137	24,6	1.002	22,7
GIZONAK	2.147	100	2.357	100	2.253	100
Tumoreak	928	43,2	892	37,8	903	40,1
Zirkulazio-aparatua	487	22,7	605	25,7	547	24,3
Arnas aparatua	167	7,8	233	9,9	198	8,8
Txegoste-sistema	114	5,3	110	4,7	106	4,7
Kanpoko kausak	78	3,6	107	4,5	100	4,4
Gainerako gaixotasunak	373	17,4	410	17,4	399	17,7
EMAKUMEAK	2.066	100	2.264	100	2.161	100
Tumoreak	542	26,2	525	23,2	595	27,5
Zirkulazio-aparatua	619	30,0	681	30,1	655	30,3
Arnas aparatua	151	7,3	166	7,3	151	7,0
Txegoste-sistema	85	4,1	106	4,7	100	4,6
Kanpoko kausak	32	1,5	59	2,6	57	2,6
Gainerako gaixotasunak	637	30,8	727	32,1	603	27,9

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko heriotzen estatistika

Bizilekua Euskal AEn dutenen heriotzak. Hileko datuak



Iturria: Eustat. Euskal AEko heriotzen estatistika

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko HERIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko heriotzen estatistikari buruzko datu-bankua](#)